

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

"A-132 errepidearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikuntza proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 279/2019 Erabakiaren bidez, "A-132 errepidearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikuntza proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eragindako titularren zerrenda Arraia-Maetzuko Udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 26a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

A-132 ERREPIDEAREN AZAZETAKO (ARABA) TARTEA URBANIZATZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA
 PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE URBANIZACIÓN DE LA CARRETERA A-132 A SU PASO POR LA LOCALIDAD DE AZACETA (ALAVA)

Esp./Expte. 2019/4

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²	
		POLIGONO	LURZATIA				BEHIN-BETIKOA	ZORTASUNA
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE TOTAL m ²	SERVIDUMBRE
1/000	RAFAEL MUÑOZ FERNANDEZ	4	14	ARRAIA-MAEZTU	BIZITEGI-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL	134		
2/000	ALVARO ORDONANA SAINZ DIONISIO MARTINEZ DE SAN VICENTE OGUETA CELESTINO ENRIQUE MARTINEZ DE SAN VICENTE OGUETA	4	3	ARRAIA-MAEZTU	BIZITEGI-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL	23		
3/000	M. PILAR MARTINEZ DE SAN VICENTE OGUETA CARLOS MARTINEZ DE SAN VICENTE OGUETA	3	227	ARRAIA-MAEZTU	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	109		
4/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE AZACETA	3	9	ARRAIA-MAEZTU	BIZITEGI-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL	67		